



**Arartekoaren 2024R-260-24 Ebazpena, 2024ko maiatzaren 9koa. Honen bidez, Bilboko Udalari gomendatzen dio erakunde honen gomendioak betetzen dituen tratamendua eman diezaiola udaltzain baten jokaeraren inguruan jarritako kexa bati. Horretaz gain, berrikus dezala kexagileak herritarren segurtasunaren araudia hautsi zuelako gauzatutako jarduketa batean udaltzainak haren aurka jarri zuen salaketaren ondoriozko zehapena.**

### Aurrekariak

1. Herritar batek kexa jarri zuen Arartekoan 2023ko urriaren 6an udaltzain batek izandako jarduketaren inguruan. Egun horretan, kexagilea Kale Nagusitik bere etxera autoz zihoan bere anaiarekin batera eta Maria Diaz de Haro kalera sartzen saiatzen ari zela, Udaltzaingoaren bi auto zeuden han, bidea eragozten.

Interesdunaren arabera, bere autoaren aurrean motor bat zegoen, eta gidariak udaltzainarekin hitz egin zuen eta pasatzen utzi zioten. Azaldu zuen ondoren autoarekin hurbildu zela kexan hizpide duen udaltzainarekin hitz egitera, esateko etxadiari buelta eman behar ziola Sabino Arana kaleko garajera sartzeko (bertan bizi da). Kexagilearen arabera, udaltzainak esan zion zuzen jarraitzeko eta urrundu zenean gidariari joateko keinuak egin zizkionez, interesdunak, eskuineko leihatilatik hitz egiten ari zenak, pentsatu zuen udaltzainak ez ziola entzun; izan ere, esaten ari zena entzutera hurbildu beharrean, ibilgailua zegoen lekutik urruntzen ari baitzen udaltzaina.

Ondoren, bere esanetan, autoa alboko aldean aparkatu zuen eta jendetasunez, garajera joateko etxadiari bira eman beharko ziola esan zion udaltzainari eta galdetu zion ea zergatik ez zion uzten kale horretara joaten, Kale Nagusiaren eta Rodriguez Arias kalearen arteko tartea hutsik baitzegoen, eta azken kale horretatik autoak pasatzen ari baitziren. Une horretan bertan hauxe esan zuen: *“el agente me contesta masticando chicle con actitud chulesca, propia de películas y con gran prepotencia que le dé el permiso de circulación que me voy a enterar lo que significa desobedecer sus órdenes y que él no está para dar explicaciones”*.

Zirkulatzeko baimena eman ondoren eta pentsatuz non bizi zen jakin nahi zuela, udaltzainak 016.544 salaketa-agiria eman zion eta galdetu zion ea isuna sinatu nahi ote zuen. Ezetz erantzun zionean, isuna autoaren haizetakoan utzi zuen. Salaketak dio arau-haustea Agirre Lehendakariaren kaleko 31. zenbakian gertatu zela, eta hauxe da salatutako egitatea *“desobedecer las órdenes del agente”*.

Kexagileak esan zuen segituan beste udaltzain bat hurbildu zela, ordura arte urrutitik begira egon zena, eta esan ziola autoan sartu eta joateko, bestela, atxilotu egingo zutela. Esan zion kalea irekitzear zegoela, eta irekitzen uzten ez bazion, atxilotuta eramango zuela.





Interesdunak udaltzainaren jarduketa horren aurkako kexa-idazkia aurkeztu zuen udalean 2023ko urriaren 9an.

Interesdunari zehapen-prozedura jarri zitzaion autoa zirkulazio-erraian aparkatzeagatik (016.546 salaketa-agiria, interesdunak esandakoaren arabera, une horretan eman ez ziotena), alegazioak ezetsi zizkieten eta zehapena ezarri zioten, ondoren ofizioz ezeztatu zena arau-haustea sailkatzean egindako akats batengatik.

Halaber, 2023ko azaroaren 10an bere aurkako zehapen-espeditentea jarri zuten "agintaritza-agenteen agindu legitimoa ez betetzeagatik" eta Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren 36.6 artikulua aplikatu zioten.

Kexagileak alegazioak jarri zituen zehapen-prozedura horretan eta ezetsi egin ziren; zehapenaren arrazoi ziren egitateak ukatzeaz gain, esan zuen inolaz ere ez zuela jokaera erasokorrik izan, ez hitzez, ezta fisikoki ere.

2023ko azaroaren 27an Udalak urriaren 9an aurkeztutako kexari erantzunez hauxe esan zion interesdunari:

*"...como resultado de su actuación se está tramitando una denuncia que le fue extendida por desobedecer la orden que le fue dada para que volviera a su vehículo y continuara ruta, ya que la inicialmente extendida por no respetar la señal de tráfico que le realizó el agente por usted cuestionado no ha sido tramitada por los defectos detectados en la misma. También le comunico que la denuncia que le fue formulada por estacionar su vehículo en el carril de circulación va a ser objeto de la oportuna anulación, pese a que sus alegaciones contra la misma hayan sido desestimadas, por cuanto en una visión de conjunto de los hechos acaecidos impiden ver dicha acción como una infracción de estacionamiento, ya que es una clara manifestación de su desobediencia al agente de la autoridad".*

2. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ondoren, Arartekoak Bilboko Udalera jo zuen kexagileak azaldutako gaiei buruzko informazioa eskatzera. Era berean, erakunde honek hauen inguruko informazioa eskatu zuen, beste batzuen artean: barnean egitateak argitzeko eta ondorioak aztertzeke egin zen ikerketa eta polizia-arduradunek kexagilearen aurka egindako salaketen inguruan egindako analisia, urriaren 28ko 7/2011 gomendio orokorraren ikuspegitik, formulazioan gehiegikeriak ekiditeko atestatuen eta administrazio-salaketen edukia kontrolatzeari dagokionez (II. 2.3 apartatua), eta urriaren 28ko 7/2011 gomendio orokorrean aipatutako ikuspegitik poliziaren jarduketa analizatzeari buruz baita ere, udaltzainen kexak eta salaketak kontrolatzeari dagokionez (II.1.2 apartatua).





3. Eskaera horri erantzunez, Udalak esan zuen xxx udaltzainak bi trafiko-salaketa jarri zituela kexagilearen aurka: bata martxan jarraitzeko agindu zion udaltzainaren seinalea ez jarraitzeagatik, eta bestea, zirkulazio-erriaian autoa aparkatzeagatik. Halaber, beste salaketa bat jarri zion udaltzainak bere ibilgailura igo eta martxan jarraitzeko legezko aginduari jaramonik ez egitearen, ibilgailua gelditu eta bertatik jaitsi eta gero.

Baieztatu zuen udaltzainak martxan jarraitzeko emandako seinaleari edo aginduari jaramonik ez egitearren jarritako 01-2023-016.554 trafiko-salaketa *"no se llegó a tramitar por cuanto el agente denunciante erró al referir como lugar de la infracción el de "Lehendakari Aguirre 31", , eta akats hori, esan zutenaren arabera, 01-2023-016.546 trafiko-salaketa aztertu zutenean detektatu zuten.*

Zirkulazio-erriaian aparkatzeagatik jarritako bigarren trafiko-salaketaren inguruan hauxe esan zuen udalak: *"si bien fue tramitada, incluso resolviendo en sentido desestimatorio las alegaciones formuladas en el trámite de audiencia, fue objeto de anulación, por revisión de oficio, la multa impuesta, una vez conocidas las circunstancias, o el contexto en que fue extendida dicha denuncia".*

Halaber, Udalak bidalitako dokumentazioan egiaztatzen da udaltzainak Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoa urratu izanagatik akta-salaketa idatzi zuela eta arau-hauste hauek aipatu zituela:

- a) *"Edozein agintari, langile publiko edo korporazio ofizial bidezko eginkizunak egikaritzea edota erabaki edo ebazpen administratibo edo judizialak betetzea edo betearaztea eragotzi nahi dioten ekintzak, betiere legez ezarritako prozeduretatik kanpo gertatzen badira eta delitu ez badira." (36.4 artikulua).*
- b) *"Agintaritzari edo bere agenteei eginkizunak gauzatzen ari direnean desobeditzea edo jarkitzea, baldin eta delitu ez bada, eta, agintaritzak edo agenteek eskatuta, identifikatzeari uko egitea edo identifikatzeko prozesuetan datu faltsuak edo zehaztugabeak alegatzea." (36.6 artikulua).*

Aktako gertakarien azalpenean hauxe dago jasota: *"se indica al denunciado la imposibilidad de circular por la calle María Díaz de Haro y se le ordena continuar ruta. El denunciado estaciona su turismo con matrícula xxxxx en el carril de circulación, luego desciende del vehículo y se niega reiteradamente a moverlo ocasionando graves retenciones. Desobedece las indicaciones del agente denunciante y se niega a volver a subir a su vehículo. Finalmente, cuando el agente trataba de impedir que siguiera caminando por la vía entre los vehículos, lo empuja en varias ocasiones y lo amenaza con tomar represalias".*





Azkenik, zehapen-espeditzea jarri zitaion "agintaritzagenteen legezko agindua ez betetzeagatik" (Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoaren 36.6 artikulua).

Toki-erakundeak hauxe esan zuen : *"Nuestra visión de la queja no obvia considerar los errores policiales habidos en la actuación, como son no sólo el incorrecto emplazamiento de las infracciones en las denuncias policiales, siendo llamativo el grueso error cometido al emplazar la infracción de tráfico denunciada consistente en no respetar la señal u orden del agente de que continuara ruta, que sorprendentemente la emplaza el agente nº xxx en el nº 31 de la avenida del Lehendakari Aguirre – y emplazándose las otras dos en el nº 31 de la c/ Gran Vía, cuando el número correcto de la vía era el 81-, sino por el hecho, incorrecto, de extender la denuncia en la que se imputa un estacionamiento en carril de circulación, cuando éste no deja de ser una manifestación de la particular desobediencia mostrada por el Sr. xxx al agente actuante, y así hubiera debido recogerse en la formulación de la denuncia por la infracción consistente en la desobediencia de la ley de seguridad ciudadana. Esta consideración fue la que motivó la anulación, por revisión de oficio, de la denuncia por estacionamiento, manteniéndose así, únicamente, la denuncia por desobediencia pese a ser incorrecto su emplazamiento, al considerar este error, de hecho, intrascendente de cara a los derechos del Sr.xxx, y de su propia actuación, ya que en su alegato consideró errado el emplazamiento por su comparación con la denuncia de tráfico que no se tramitó."*

Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoak aipatzen dituen agintaritzagenteen aginduak ez betetzeari dagokionez, erantzun-txostenak hauxe baieztatzen du: *"traen causa, a nuestro juicio, de una incorrecta interpretación del carácter servicial de cualquier cuerpo policial que realizan algunas personas, y que pasa por considerar que los y las agentes están al servicio de sus particulares intereses y necesidades, y no al servicio de los intereses de la comunidad, que es, obviamente, cosa distinta. En el caso que nos ocupa, el Sr. xxx nos parece estar plenamente convencido de que los agentes que se hallan regulando el tráfico, cortándolo, deben darle las correspondientes explicaciones referentes a su razón, convencimiento que obviamente carece de todo fundamento. Las órdenes de los agentes en materia de tráfico se han de atender, obviamente, de la misma manera que ha de atenderse cualquier otra señal de tráfico, vertical u horizontal, o semáforo, con la única diferencia sobre estas últimas de que aquellas, las señales y órdenes de los agentes, son prioritarias sobre las demás, caso de concurrir varias de ellas."*

Gainera, toki-erakundeak Arartekoari interesekotzat jo zuen informazio hau eman zion, kexan azaldutakoei erantzuteko:





*“Consideramos que la actuación del Sr. xxx puede calificarse, precisamente, como califica él la del agente actuante, pues para desatender la orden o señal del agente de que continuara ruta, para considerar la procedencia de una personalísima explicación de las razones del actuar policial y para bajarse del coche y desatender, reiteradamente, la orden del agente de embarcarse en el vehículo y continuar ruta, hace falta tener un concepto muy elevado de uno mismo así como un concepto muy bajo del agente y de su cometido profesional, considerándolo no un servidor público sino un servidor privado, al exclusivo servicio de los intereses o necesidades del Sr. xxx.*

*Hemos de destacar que el cúmulo de desaciertos cometidos por el agente, y el mismo sistema de trabajo municipal, que ya estamos modificando, ha impedido dar una respuesta adecuada y proporcional a la conducta del Sr. xxx, ya que además de haber tenido que hacerse cargo de la sanción de tráfico por no respetar la inicial señal del agente, que es de 200€ (100€ por pronto pago) y retirada de 4 puntos, habría de haberse hecho cargo de una sanción, mucho mayor, por la infracción de desobediencia de la nueva orden del agente relativa a su embarque y marcha del lugar, en la debida forma y manera, y no en la cifra mínima del grado mínimo del arco sancionador, dada la contumaz y reiterada negativa del Sr. xxx respecto de esta segunda orden del agente actuante”.*

4. Hortaz, beharrezkoak diren egitate- eta zuzenbide-elementuak daudela uste denez, honako gogoeta hauek egiten ditu Arartekoak:

#### Gogoetak

1. 2011ko urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean, "Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari" buruzkoan, Arartekoak aitortu du poliziaren arduradunek ikerketako barne-prozedura ofizioz abiarazi behar dutela, agenteren batek ustez oker jardun duela jakinez gero, gertatukoa ikertu, jarduera hori bide egokitik joan ote zen egiaztatu eta, hala badagokio, bidezko neurriak hartzeko. Halaber, adierazi du polizia arduradunek aintzat hartu behar dituztela herritarrek egindako kexak edo salaketak, haien berri izateko bidea edozein dela ere, betiere ikertu eta argitu behar duten lehen zantzu gisa, argi eta garbi funtsik ez dutenean izan ezik.

Erakunde honek bere gomendioan nabarmendu duenez, ikerketaren edukiak egokia eta nahikoa izan behar du aztertzen ari den egoera argitzeko. Era berean, azpimarratu du ikerketan gertatutakoa argitzeko benetako esfortzua egin behar dela eta baliagarriak diren ikerketa-aukera guztiak agortu behar direla gertaerak argitu ahal izateko. Arartekoaren arabera, kexan aipatutako agenteek egitateei buruzko beste bertsio bat emateak berez ez du balio beste ikerketa batzuk baztertzeko edo





jardueraren egokitasunari buruzko iritzi baten oinarri gisa erabiltzeko. Era berean, kexak ikertzean, gertatutakoan parte hartu duten agenteen lekukotasuna jasotzea ez da nahikoa, beste ikerketa-jarduera batzuk egiteko ezintasuna justifikatzen ez bada; agenteen bertsioa ezin da besterik gabe ontzat eman (II.1.1. atala).

Bestalde, Arartekoak azpimarratu du ikerketa zabaltzeak ez duela esan nahi kexari sinesgarritasun osoa ematen zaionik, ezta polizien profesionaltasuna zalantzan jartzen denik ere; aitzitik, funtsezko tresna da jarduera desegokiak prebenitzeko eta, halakorik balego, antzeman eta zuzentzeko.

Bilboko Udalak erakunde honetara bidali duen informazioarekin bat etorritz, udaltzainek kexaren inguruan egindako ikerketan kexan aipatutako udaltzainaren, bere lankidearen eta udaltzainak atxikita zeuden Deustuko auzo-ikuskaritzaren ofizial arduradunaren iritziak jaso zituzten; azken horrek udaltzainekin banan-banan hitz egiteaz gain, gertatutakoaren eta izan zuten jarreraren inguruko txostena eskatu zien. Ofizial berak esan zuenaren arabera, telefonoz deitu zion baita ere kexagileari bere bertsioa entzuteko eta kexa-idazkian jaso ez zituen xehetasunak ezagutzeko.

Kexan aipatzen den udaltzainarekin batera zegoen udaltzainak 2023ko azaroaren 7ko txostenean azaldu zuen bera ari zela leku horretako trafikoa arautzen goranzko zirkulazio-norabidean, eta beste udaltzaina aldiz, beheranzko norabidean. Bere azalpenen arabera, motozikleta baten gidaria hurbildu zitzaion Maria Diaz Haroko kalean aparkatzeko igarotzen uzteko eskatuz, Rodríguez Arias kalearen aurretik, eta pasatzen utzi zion. Une horretan, ezin izan zen hurbildu zirkulazioa arautzen zegoelako, baina entzun zuen pertsona bat jarrera txarrarekin eztabaidan ari zela bere lankidearekin, baina esan du ez dakiela ziur zertaz ari ziren. Hala ere, ikusi zuen eztabaidan zegoenaren ibilgailua aparkatuta zegoela eta Kale Nagusitik behera zihoazen ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen ari zela eta gidaria kanpoan zegoela. Gero, lankideari galdetu zion zer ari zen gertatzen eta hauxe erantzun zion *"el conductor del vehículo quería acceder a los garajes de la calle Rodríguez Arias y había estacionado en medio de la vía, haciendo caso omiso a sus órdenes y llegando a faltarle al respeto y empujarle en varias ocasiones"*.

Ondoren, bere esanetan, kexagilea berarengana hurbildu zen pasatzen utz ziezaion, eta erantzun zion bere lankideak salaketak ematen zizkionean, ibilgailura sartzeko eta joateko. Adierazi du uneoro aurka agertu zela eta hauxe esan ziola *"al final iba a acabar siendo denunciado por una infracción penal, por desobediencia grave a agente de autoridad si no cesaba en su actitud amenazante y desafiante"*.

Bere aldetik, ofizialak, elkarrizketak hizpide hartuta, 2023ko azaroaren 14an hauxe esan zuen: *"la actitud o la infracción (estacionar en carril de circulación obstaculizando el tráfico) que origina esta situación de malestar por parte del*





*ciudadano es evidente y no es negada por ninguna parte. Las percepciones de las actitudes a la hora de afrontar la situación que origina la queja vecinal, difieren totalmente una de otra, indicando ambas partes a la otra como la protagonista de actitudes poco éticas, chulescas, maleducadas y hasta agresivas. Con la información obtenida, no puedo sacar conclusiones claras sobre una actitud inadecuada de los agentes".* Ondoren, ofizialak esan zuen udaltzainek egunero beren profesionaltasuna erakusten dutela eta kaleko esku-hartzeak eraginkortasunez eta herritarrek errespetatuz ebazten dituztela.

Hala eta guztiz ere, ofizialak esan zuen informazio horrekin ezin duela ondorio argirik atera udaltzainen jokaera desegokiari buruz eta jokaeren inguruko pertzepzioak oso ezberdinak direnez, udalak ez du justifikatu ezinezkoa denik bestelako ikerketarik egitea zalantza posibleak argitzeko —adibidez, ibilgailuan zegoen kexagilearen anaiaren testigantza jasotzea—.

Beste alde batetik, udalaren informazioak erakusten du udaltzainak ez zuela bere iritzirik eman kexagileak salatu zuen tratu desegoki eta lardertzatzailearen inguruko txostenean, ezta ere izan zuen eta ofizialak eskatu zion jokaeraren inguruan. Kexa oinarritzeko gertakarien iritzirik ere ez zuen eman, baina ez zituen zalantzan jarri.

2023ko azaroaren 14ko txosten horretan, udaltzainak esan zuen gidariak ez zuela jaramonik egin eta Kale Nagusian geratu zela, zirkulazio-erraiaren erdian. Ibilgailua utzi zuen moduan, Kale Nagusiko zirkulazioa eta zirkulazioa berrezartzean, Maria Diaz Haroko kalearekiko sarbide posiblea oztopatzen ari zen. Adierazi zuenez, *"se informó al conductor de que, debido al evento que se estaba celebrando, las calles estaban cortadas y debía buscar una vía alternativa para llegar a su destino. Acto seguido se ordenó al conductor en repetidas ocasiones que continuara la marcha ya que estaba obstaculizando gravemente el paso, pero éste, no solo desobedeció las indicaciones del agente, sino que se apeó del vehículo y deambuló por la vía con el consiguiente riesgo tanto para sí mismo como para los demás."*

Gehitu zuen, gidaria ibilgailura itzuli ez zenez, identifikatu egin zutela. Eta hamabost minutuz salatua zirkulazio-erraiaren aparkatutako ibilgailuaren ondoan egon zela, gainerako ibilgailuen artean oinez egiten. Udaltzainaren arabera, askotan esan zioten errepidetik atera eta bere autoa kentzeko, baina behin eta berriz ezetz erantzun zien. Baieztatu du une oro joera oldarkorra izan zuela, errepresalien mehatxu egin zuela eta hainbatetan bultzatuta egin ziola, udaltzaina zirkulazio-erraitik oinez egiten ibiltzea ekiditen saiatzen ari zen bitartean. Azkenik, zirkulazioa berrezarri zutenean, salatua joan egin zen.

Udaltzainak txosten horretan azaldu zuen interesdunari esan ziola ekitaldia zela-eta bere helmugara iristeko beste bide bat aurkitu behar zuela. Hala eta guztiz ere, inguruabar hori ez zen jaso 2023ko urriaren 6ko txostenean, Herritarren





Segurtasuna Babesteko Lege Organikoa urratzeagatiko salaketa-aktaren ondoren eman zenean.

Interesdunak udalera bidali zuen kexa-idazkiaren arabera, bakarrik bost minutu igaro ziren iritsi eta trafikoarentzat kalea ireki zutenetik, eta ez du sekula esan udaltzainak azaldu zionik zergatik moztu zuten trafikoa eta ibilbide horretatik garajera joatea ezinezkoa zela. Horri dagokionez, udalak herritarrari bidalitako erantzunean dio udaltzainak *“son meros cumplidores de las órdenes de sus superiores y se hallan sujetos a una considerable presión, al encargarse de la consiguiente regulación de tráfico, no pudiendo disponer del tiempo necesario para dar cumplida explicación a las personas conductoras que se ven afectadas por dicho corte de la concreta razón o fundamentos de cada corte, sin que ello afecte a la fluidez del tráfico”*.

Horren inguruan, erakunde honek argitu nahi du Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia agenteek tratatu zuzena eta zaindua eskaini behar dutela herritarrekin dituzten harremanetan. Era berean, beren esku-hartzeen eraginpekoei derrigorrez esku-hartzeen inguruko informazio nahikoa eta ulergarria eman behar diete. Gainera, edozein gehiegikeria edo jardun bidegabe saihestuko dute. Eginkizun horiek kexan aipatzen diren gaiekin zerikusia dute eta Bilboko Udaltzaingoaren kode deontologikoan daude ( 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko legearen testu bategina onartzen duena, 24. eta 25. artikulua).

Arartekoak, legezko betebeharretatik abiatuta, azpimarratu du agenteek beren esku-hartzeak arrazoitu behar dituztela eta hori oso garrantzitsua dela. Honakoa aitortu du: *“Premiazko edo berehalako arrisku inguruabar apartekorik gertatzen ez bada, agenteek azalpena, azalekoa bada ere, eman behar diote eragindako pertsonari euren jardueraren arrazoiei buruz”*; horrez gain, ondorengoa eransten du: *“Pertsona bati kalean heltzen zaion modua erabakigarria da egitateek ondoren hartzen duten bidean. Horregatik, beti zuzena eta errespetuzkoa izan behar du”*.

Arartekoak ulertzen du egoera zehatzetan poliziaren zereginak tentsiopean egiten direla, eta ofizialaren txostenean hori azpimarratzen da. Baina aldi berean, ulertzen du herritar bat udaltzain batengana fede onez joaten denean bere garajera joan ote daitekeen galdetzeraz harrিতuta eta deseroso sentitu daitekeela Maria Diaz Haroko kalearen eta Rodriguez Arias kalearen arteko tartea hutsik dagoelako, eta bertatik igaro behar delako bere garajera joateko, eta udaltzainak informazioa eman beharrean kexan deskribatutako jarrera izan zuelako, hau da, zuzenean agintzea ibiltzen jarraitzeko, eta ondoren hiru salaketa jartzea. Harridura eta deserosotasun hori jakinarazi zizkion interesdunak udalari kexa-idazkian eta Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoa urratzeagatik hasi zen zehapen-espeditentearen alegazioetan.







2. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean Arartekoak nabarmendutakoarekin bat, polizia-arduradunek jakitun izan behar dute argiketariak edo administrazio-salaketak egitean lege-antolamenduak agenteei ematen dien ahalmenaz abusa daitekeela. Hori jardun maltzurak prebenitu eta antzemateko aurretiazko urratsa da. Era berean, ohartu da eremu honetan gehiegikeriek "kontrasalaketa" izenekoari erantzun diezaieketela. Horren arabera, agenteek pertsona baten aldetik beren esku-hartzeak kexa bat sor dezakeela antzematen dutenean, aurreratu egiten dira pertsona horren aurka salaketa eginez. Azaldu behar da arlo horretan egon daitezkeen gehiegikeriak gehienetan ez direla besterik gabe ikusten, legezkoak diren polizia-jardueren itxurapean estalita egoten direla baizik; ondorioz, zailagoa izaten da halakoak antzematea eta frogatzea. Aurrekoaren harira, halako gehiegikeriak saihesteko eta azkenean gertatzen badira antzemateko, kontrol-mekanismoak zehaztea gomendatzen du (II.2.3. apartatua).

Gomendioan erakunde honek aipatutakoarekin bat etorriz, administrazio arau-hausteengatik salaketak unean jakinaraztea oinarrizko eta funtsezko neurria da aipatu arriskua saihesten laguntzeko. Une horretan, salatutakoak gertakariak ezagutu eta alderatuko ditu. Horrez gain, salaketa unean bertan ez jakinarazteko arrazoi zehatzak izendatu behar dira eta onartezinak dira justifikazio orokorrak, zertan datzan zehazten ez dutenak.

Arartekoaren ustez kexaren azpian halako gaitzespena antzeman zitekeen eta horregatik eskatu zion Bilboko Udalarari udaltzainak kexagilearen aurka jarritako salaketak ikuspegi horri erreparatuz aztertzea.

Udalak bakarrik esan zuen *"El análisis de los responsables policiales se contiene en el expediente de queja más arriba referido"*, baina erakunde honi ez dio esan analisi hori egin zuen ala ez, ezta gomendioaren puntu hori betetzeko mekanismoak ezarri diren ala ez, horien inguruan erakunde honek interes berezia agertu arren.

Informaziorik ezaren gaiarekin jarraituz, erakunde honek berriz azpimarratu behar du gomendioa bete eta mekanismoak zehaztu behar direla. Polizia-arduradunek ikuspegi horretatik aztertu behar dituzte salaketak, gertatutakoa ikusirik eta udaltzainak egoera kontuan hartuta salaketa jartzean gehiegikeriaz jardun al zuen egiaztatzeko.

Arartekoaren iritziz, polizia-arduradunek analisisan aurrerago egingo diren gogoetei erreparatu behar diete. Ikuspuntu horretatik abiatuta aztertu beharko lukete kexagileak alegatutako egoeratan interesdunak udaltzainaren agindua desobeditu al zuen. Izan ere, kexagilearen adierazpenak udaltzainak ez ditu zalantzan jarri ezta ezetsi ere, eta udalak berak jokabide berdina izan du.





Azaldu den moduan, kexagileak esan zuen bakarrik 016.544 salaketa-agiria eman ziotela arau-haustearen lekuan. Bertan, salatutako egitatea "udaltzainaren aginduak ez betetzea" izan zela jaso zen eta ez zen izapidetu, udaltzainak ez zuelako zuzen jarri arau-haustearen lekua.

Hala eta guztiz ere, erakunde honek gogorarazi nahi du agintaritza-agenteeek egintza salatuari jakinarazten dioten salaketetan, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen (Trafikoari buruzko Legea) urriaren 30eko 6/2015 Legegintza Errege Dekretuaren 87. artikuluaen bigarren apartatuan zehaztutakoaz gain, hirugarren apartatuko inguruabarrak ere jaso beharko direla (adibidez: ustez egin duen arau-haustea, legokiokeen zehapena eta arau-hausteak atxikita duen puntu-galera). Hala ere, salaketan ez ziren baldintza horiek jaso.

Kexagileak esan duenez, trafiko araudiaren arau-haustearengatiko beste salaketa ez zioten unean bertan eman, eta bere alegazioak ezetsi eta gero, Bilboko Udalak ofizioz ezetsi zuen, bere iritziz argi zegoelako udaltzainari jaramonik ez ziola egin.

Horren inguruan zehaztu behar da trafikoa zaintzen duten agintaritza-agenteeek nahitaez unean bertan jakinarazi behar dituztela sektore-araudia urratzeagatiko arau-hausteen ondorioz jarritako salaketak, eta bakarrik kasu batzuetan ezartzen dira salbuespenak eta tasatuta egon behar dira: adibidez, "agente salatzailea trafikoa zaintzen, kontrolatzen, arautzen edo diziplinatzen egotea eta bitartekorik ez izatea ibilgailuari jarraitzeko" (Trafiko Legearen 89. artikuluko 2.d) eta 2.a) apartatuak).

Argi dago kasu honetan ez zela gertatu arauan jasotako inguruabarra, ibilgailua aparkatuta baitzegoen eta gidariari agiri bat eman baitzitzaien. Horrenbestez, ez zegoen eragozpen batik ere salaketa emateko eta horregatik baliogabea da, Trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren arloko zehapen-prozeduraren erregelamendua onartzen duen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuaren 10.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Azkenik, Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoaren arau-haustearengatiko salaketari dagokionez, interesdunaren alegazioen ondoren, udaltzainak bakarrik bere iritzia berretsi zuen eta zehapen-ebazpenak formula estandarizatu batekin ukatzen ditu; hau da, egitateak frogatutzat jotzen dira (agintaritza-agenteen egiazkotasun-presuntzioan oinarrituz) eta kasu horretan aplikatzekoa den legeria zehatzailea aipatzen du, baina ez ditu berariaz alegazioak aipatzen eta ez du azaltzen zergatik uste izan zuten kexagileak salatutako arau-haustea egin zuenik.





Arartekoaren ustez, modu horretan alegazioen izapidea desnaturalizatzen da eta babesgabetasun osoa sortzen da; izan ere, zehapenaren arrazoi formala ezagutu arren, benetan ez zuen jakin zein zen azken arrazoia.

Bestalde, erakunde honek uste du egiazkotasun-presuntzioa ezin dela automatikoki aplikatu kasu bakoitzaren inguruabarrak baloratu eta kontuan hartu gabe.

Erakundearen iritziz, salaketak jartzen direnean, bakarrik agenteak gehiegikeriaz jardun ez duela argi dagoenean aplikatuko zaie legez esleitua duten egiazkotasunaren ustezkoa.

Premisa horretatik abiatuta, eskusiboki egiazkotasunaren legezko ustezkoan oinarrituta, aztergai dugun kexan salaketari froga-balioa emateko, deskribatu den kasuaren gorabeherak kontuan hartuta, beharrezkoa litzateke polizia-arduradunek aipatu gidalerroei jarraikiz ikertu eta aztertzea udaltzainak zuzen jokatu ote zuen edo bere funtzioak betetzean gehiegikeriaz jardun ote zuen. Hala, kexagileak sortutako zalantzak argituak geldituko lirateke, baina Arartekoaren ustez ez da horrelakorik gertatu.

3. Arau-haustearen muina den salatutako egitateari dagokionez, aurretik gogorarazi behar dugu udaltzainak esan zuela kexagileari keinu bidez agindu ziola martxan jarraitzeko eta ez ziola jaramonik egin. Bitartean, gidariak baieztatu zuen autotik jaitsi zela galdetzeko zergatik ezin zen garajera joateko bertatik igaro kalea hutsik egonik, kexagileak uste baitu udaltzainak ez zituela bere hasierako azalpenak entzun.

Egoera horrek bi salaketa sortzen zituen zirkulazioaren administrazio-arloan:

- a) "zirkulazio-agentearen aginduak ez betetzeagatik" (Trafiko Legearen 76 j artikulua, hau da, ez errespetatzea trafikoa arautzen, antolatzen, kudeatzen, zaintzen eta diziplinatzen duen agintaritzaren edo agenteen seinaleak edo aginduak).
- b) "Zirkulazio-erri batean aparkatzeagatik" (Zirkulazioko udal-ordenantzaren 38. artikulua).

Halaber, herritarren segurtasunaren arloan salaketa bat sortu zen, bere ustez, izandako jokaera Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoaren 36.6 artikuluaaren arabera arau-hauste larria zelako: *"Agintaritzari edo bere agenteei eginkizunak gauzatzen ari direnean desobeditzea edo jarritzea, baldin eta delitu ez bada, eta, agintaritzak edo agenteek eskatuta, identifikatzeari uko egitea edo identifikatzeko prozesuetan datu faltsuak edo zehaztugabeak alegatzea".*





Udalak interesdunaren kexari erantzun zion 2023ko azaroaren 27an, eta hauxe baieztatu zuen *"...como resultado de su actuación se está tramitando una denuncia que le fue extendida por desobedecer la orden que le fue dada para que volviera a su vehículo y continuara ruta, ya que la inicialmente extendida por no respetar la señal de tráfico que le realizó el agente por usted cuestionado no ha sido tramitada por los defectos detectados en la misma"*.

Baieztapen horretatik ustez ondorioztatzen da trafiko-salaketako akatsak ikusirik, Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoa hausteagatik salaketa bihurtzea erabaki zela. Aldaketa horren aurrean, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du zehaztea Trafiko Legearen helburua trafikoa, ibilgailu guztien zirkulazioa eta errepide-segurtasuna arautzea dela (1. artikulua), eta Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoaren helburua herritarren segurtasuna zaintzea dela eta abiapuntua *"ezinbesteko baldintza bat dela oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak erabat egikaritzeko, eta horiek zaintzeko, izaera kolektiboko ondasun juridiko gisa"* (Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoaren 1.1 artikulua), modu honetan: *"pertsonak eta ondasunak babestea eta herritarren lasaitasuna mantentzea"* (Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoaren 1.2 artikulua), zeina zalantzarik gabe ez dagoen araututako ibilgailuen zirkulazioaren eraginpean.

Konstituzio Auzitegiak azaroaren 19ko 172/2020 Epaian honako hau ezartzen du:

*"Como bien jurídico cuya tutela corresponde ejercer al Estado, la seguridad ciudadana se puede entender como el estado en el que el conjunto de la ciudadanía goza de una situación de tranquilidad y estabilidad en la convivencia que le permite el libre y pacífico ejercicio de los derechos y libertades que la Constitución y la Ley les reconocen (STC 55/1990, de 28 de marzo, FJ 5), lo que se puede lograr a través de acciones preventivas y represivas. Es por ello que el legislador justifica la intervención de las autoridades por "la existencia de una amenaza concreta o de un comportamiento objetivamente peligroso que, razonablemente, sea susceptible de provocar un perjuicio real para la seguridad ciudadana y, en concreto, atentar contra los derechos y libertades individuales y colectivos o alterar el normal funcionamiento de las instituciones públicas" (art. 4.3 LOPSC); intervención previa en aras de lograr la seguridad ciudadana, que es distinta de la posterior actividad sancionadora.*

*La interpretación de este concepto de seguridad ciudadana ha de realizarse tomando en consideración los fines que con ella se persiguen (art. 3 LOPSC) y los principios rectores de la acción de los poderes públicos (art. 4 LOPSC)".*

Aurreko guztitik ondorioztatzen da arau biek herritarrentzako aginduak eta betebeharrak dituztela bi sektoretan, eta horiek urratzen badira zehapena ezartzen





dela. Hala ere, erakunde honen ustetan, Trafikoaren Legearen 76 j) artikulua betetzen ez den kasu guztietan ez da halaberrez Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoaren 36.6 artikulua urratzen; izan ere, araua urratzen bada, arau-hauste pilaketa gertatuko litzateke.

Gainera, Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoaren 31.1 artikulua honela dio: *“Lege honen edo beste baten bi manurekin edo gehiagorekin bat etorriz kalifikatzeko moduko gertaerak honako arau hauen arabera zehatuko dira: a) Manu orokorraren aurrean, bereziak du aplikatzeko lehentasuna”*.

Edonola ere, Arartekoak uste du trafikoa zaintzen ari den eta esleituta dituen eginkizunak betetzen ari den agintaritzza-agente batek emandako aginduak ez betetzea ez dela Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoan lanean ari diren (hau da, herritarren segurtasuna babesten ari direnean) agenteei edo agintaritzari jaramonik ez egitearekiko baliokidea; izan ere, bigarren kasu horretan, beharrezkoa da baita ere urraketa horrek herritarren segurtasunerako benetako kaltea sortzea. Beste alde batetik, Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoa hausteagatik jarritako akta-salaketan azaldutako egitateen kontakizunean egiaztatzen da presente dagoen ondasun juridikoa hain zuzen ere “trafikoa eta bide segurtasuna dela”.

Hala, sektore-legerian ezarritakoa ez den zehapen-araubidea aplikatzeak (onesteko arrazoi izan ziren ondasun juridikoez haratagokoak babesteko helburuarekin) tipikotasun-printzipioa desnaturalizatzen du erakunde honen ustetan.

Hori guztia, ahaztu gabe Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoaren 36.6 artikulua jokoera tipikoak eskatzen duela agentea herritarren segurtasuna babesteko lanean egon behar dela, eta kasu honetan ez da horrela izan, trafikoa arautzen baitzegoen.

Laburbilduz, Arartekoak uste du tipikotasun-printzipioa urratu dela eta horrenbestez, zehapenak ez duela zuzenbidea betetzen.

4. Bukatzeko, erakunde honek aipatu egin behar ditu administrazioen txostenean kexagilearen inguruan esandakoak, eta baita ere zehapena askoz ere handiagoa izan beharko litzatekeela dioten adierazpenak.

Arartekoak gogorarazi nahi du beharrezkoa dela administrazioak objektibotasun-printzipioa errespetatzea, are gehiago zehapen-prozedura dagokionean. Horrez gain, inpartzialtasunez, neutraltasunez eta prozedura-arauak errespetatuz jardun behar du. Horri lotuta, aurreko paragrafoan jasotako baieztapenak ez ditu udalak jarraitu beharreko jarduketa-kanonak betetzen.





Era berean, Arartekoak gogorarazi nahi du zehapenak ezartzeko organo eskudunek proportzionaltasun-printzipioak kontuan hartu behar dituztela arauak ezarritako mugak errespetatuz. Hala, arau-haustearen larritasuna kalifikatzea ez da uzten administrazioaren diskrezionalitate librean, baizik eta legeek beharrezko dituzten mailakatzeko irizpide legalak kontuan hartu behar dira (Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoaren 33. artikuluan aztertzen den kasua da). Modu horretan, erakunde honi bidalitako txostena zehapenarekin ados egon ez arren, Herritarren Segurtasuneko Arloko zuzendariak jarri du eta berari zegokion baloratzea ea kasu horretan aipatutako artikuluan arau-haustea ertain edo gehieneko gisa zehatzeko deskribatutako inguruabarrak gertatu ote ziren. Aurreko guztia, dagokion arrazoiketa gorabehera.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak gomendio hau egiten dio Bilboko Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **GOMENDIOA**

1. Zehapen-prozedurak izapidetzean izapidegileak salaketa berrestea eskatzen duenean, udaltzainei eska diezaiela berariaz eta xehetasunez aipatu ditzatela interesdunek egindako alegazioak.
2. Behar diren neurriak har ditzala urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorra betetzea bermatzeko, ebazpen honetako muinean azaldutako alderdietan.
3. Indargabetu dezala kexagileari udaltzainak Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoa hautsi izanagatik jarri zion zehapena, uste dugulako tipikotasun-printzipioa urratzen duela, eta horrenbestez, ez duelako zuzenbidea betetzen, eta erabaki dezala ordaindutako zenbatekoa itzultzea, hala badagokio, eraginkor egiteko.

